



*Berrikuntzako eta ezagutzaren gizarteko diputatua*

**JOSÉ RAMÓN GURIDI: “KULTURA EKINTZAILEARI  
ESKER, PERTSONEK GEROZ ETA ALDAKORRAGOA ETA  
GLOBALIZATUAGOA DEN INGURUNE BERRI BATI  
SORMENEZ AURRE EGIN AHAL IZANGO DIOTE”**

- *“Ekintzaile izatea, bizitza osoan ikaskuntza pertsonala eta etengabearekin konprometitzea esan nahi du”*
- *“Gure iritziz, enpresa-garapen berriak sortzea eta bultzatzea lan konplexu baina motibagarria da eta hezkuntza- eta gizarte-giro egokia behar du, behar bezala ezar dadin”*

Kultura ekintzailea eta Gipuzkoako lurraldearen bihurketa pertsona ekintzaileen sorrerarako eta garapenerako eremu pribilegiatu batean bultzatzea da Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Ezagutzaren Gizarteko Departamentuaren eta José Ramón Guridi bertako arduradun nagusiaren helburu garrantzitsuenetako bat. Hark erabat estrategikotzat jotzen du bizitza osoan zehar ikasteko balioak eskolatik bertatik bultzatzea.

*“Kontuan izan beharra dago —azaldu du Guridik— ekintzailetzaren kontzeptuak irmotasuna eta konpromisoa dakartzala gogora, inguruan duguna, baina, batez ere,*

*bizitza osoan etengabe ikasten segitu beharra barneratzea esan nahi du. Hori dela eta, pertsona guztiak izan gaitzke ekintzaileak, baina, horretarako, balio, jarrera eta kompetentzia egokiak garatu behar ditugu. Balio horiek, pertsonen, erakundeen eta gizarte iraunkorrako eta kohesionatuago baten garapen pertsonal eta profesional hobea bultzatzen lagundu dezakete eta lagundu behar dute. Bestalde, horrek guztiak, arlo pertsonalean, profesionalean eta sozialean lan egitea eskatzen du eta, kasu honetan, hezkuntzaren arloa oinarritzko eragileetako bat da.”*

*- Zein konpetentzia bultzatu behar dira kultura ekintzaile eraginkor bat abian jartzeko?*

*- Funtsezkoa da ulertzea jarduera espezifikoak behar direla, jarduera horien bidez trebetasun- eta jarrera-zerrenda konplexu bat erdietsiz, pertsonen sormenez aurre egin ahal diezaizoten ingurune berri eta aldakorriari. Azken finean, aurrerapen iraunkor eta kohesionatu baterantz bideratutako ezagutzaren gizarte batean pertsona ekintzaileak beren etorkizunaren protagonista bihurtuko dituzten balioen multzoaz ari gara.*

*Europako esparrutik esaten da, pertsona guztiek mota askotako konpetentziak beharko dituztela, hain azkar aldatzen ari den eta hainbat interkonexio azaltzen dituen mundu honetara malgutasunez egokitzeko. Eta azpimarratzen zaigu, hezkuntzak eta prestakuntzak, eginkizun bikoitza duten aldetik, soziala eta ekonomikoa, funtsezko rola izan behar dutela, pertsona guztiek, aldaketa horiei malgutasunez egokitzeko oinarritzko konpetentziak eskura ditzaten.*

*Horregatik, ezagutzaren gizartean norberaren errealizazio osoa, biztanleria aktiboa, gizarte-kohesioa eta enplegarritasuna lortzeko behar diren oinarritzko konpetentziak zehaztu eta finkatu nahi dira. Etengabeko ikaskuntzarako oinarritzko konpetentzia horiek testuinguru zehatz batera egokitutako ezagutzen, gaitasunen eta jarreraren multzo bat osatzen dute. Eta beharrezkoak dira norberaren errealizaziorako eta gizarte-integratziorako, bai eta biztanleria aktiborako eta enplegurako ere.*

*Batasunaren gomendio horretan, “ekimenaren zentzua” definitzen denean, pertsonen, ideiak ekintzetan bihurtzeko duten gaitasuna dela esaten da. Konpetentzia hori sormenarekin, berrikuntzarekin eta arriskuak hartzearekin lotuta dago, baita helburuak lortzeko asmoz proiektuak planifikatzeko eta kudeatzeko gaitasunarekin ere. Konpetentzia horretaz baliatzen dira pertsona guztiak, ez bakarrik eguneroko bizitzaren esparruan, etxean eta gizartean, baita lantokian ere, lana zer testuingurutan garatzen den jabetzen diren neurrian eta aukerak aprobetxatzeko gauza diren heinean. Gainera, pertsonen behar dituzten (bai gizarte- zein ekonomia-jarduera batean) beste zenbait gaitasun eta ezagutza espezifikoagoren oinarria da. Azkenik, horrek guztiak balio etikoei buruzko kontzientziarioa barne hartu behar du eta gobernantza ona bultzatu.*

## HEZKUNTZA ARLOAREN FUNTSEZKO ROLA

- Zein rol izan dezake hezkuntza-arloak kultura hori sustatzeko orduan?

- Bizitza osoan zehar egin beharreko ikaskuntzaren ikuspuntutik begiratuta, ulertzen da kompetentziak —kasu honetan ekimen-gaitasun edo ekimen ekintzailearenak— hainbat arlotan eskuratuz goazela, baina adierazten da hezkuntza-arlo formalak eginkizun nagusi bat duela eta, horregatik, arlo horri ematen zaio lehentasuna pertsonen eta, beraz, baita gizartearen ere, kultura ekintzailea sustatzeko subjektu nagusi gisa.

Ekimenak aurrera eramateko kompetentzien bidez, horiek zentzu zabalean ulertuta, egoerak aztertzea, aukerak planteatzea, balioztatzea eta egokiena iruditzen zaiguna hautatzea eta, funtsean, horiek, ekintzek izan ditzaketen eraginak kontuan hartuta, aurrera eramatea ahalbidetzen da Pertsona bat (nor da ekintzailea), ekintza bat (zertan datza) eta prozesu bat (nola egingo da) bateratzea esan nahi du, besteak beste.

Beraz, hezkuntza-arloak ekimeneko pertsonak hezi (eta bultzatu) behar ditu, pertsona guztiak ekintzaileak izan gaitzkeelako, hau da, gogoeta, sormena eta berrikuntza garatzeko (eta ustiatzeko) gai diren izakiak gara. Pertsonak arlo bat baino gehiagotan gara ekintzaileak: arlo pertsonalean, sozialean eta profesionalean.

Horregatik, hezkuntza-arloak, ekintzailetza hezkuntza-sisteman bertan sartu behar du, norberaren kulturaren eta identitatearen ezagutza sustatu, nork bere ekintzen erantzukizuna hartzea bultzatu, sormena garatu; eta ekimen-gaitasunarekiko koherentzia gordeko duten balioak lerrokatu ere bai.

- Zer egiten du zure departamentuak?

- Gure helburua ekintzaile izaten ikasteko jarrera bultzatzea da, zalantzarik gabe. Baina horrek ez du esan nahi nolabait, eskolan merkatuko espiritua, hizkuntzak eta egiturak zabalduz, enpresari txikiak sortzen saiatzea. Kultura ekintzailea (edo ekimenaren zentzua) pertsonen ingurune berri, aldakor eta globalizatu bati sormenez aurre egitea ahalbidetuko dieten trebetasun eta jarreraren zerrenda konplexu batez osatua dago.

Hori kontuan izanda, uste dugu kultura ekintzailea sustatzera zuzendutako hezkuntzari buruz bi alderdi desberdin, baina bata bestearen osagarri, bereizi behar direla. Alde batetik, jarrera eta gaitasun ekintzaileetan oinarritutako hezkuntzaren adiera zabala, ikasle guztiei zuzenduta dagoena ('non business focus'); eta bestetik, enpresa bat sortzera zuzendutako prestakuntzaren kontzeptu espezifikoa ('business focus').

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Ezagutzaren Gizarteko Departamentuaren kasuan, 'non business focus' ereduari ematen zaio lehentasuna, beste zenbait ekimenen oinarri gisa eta, besteak beste, ondorengo alderdiak barneratzen saiatuz:

—ikasketa-planen barnean era esplizituan sartzea

*–laguntzako neurri osagarriak artikulatzea: proiektu pilotuak eskoletan, irakasle-taldeak motibatzea eta prestatzea, material didaktikoak/pedagogikoak, etab.*

*–esperientzia onak identifikatzea eta horiei balioa ematea (gizarte-aintzatespena eta ikasitako ikasgaiak) eta beste lurralde-eremuekin informazioa eta esperientziak trukitzea.*

## **EKIMENAK**

- Testuinguru horretan, zein ekimen jarri ditu abian Berrikuntzako eta Ezagutzaren Gizarteko zure Departamentuak?

*Gure departamentuak aurrera eramandako jarduera nagusiak ondorengoak dira:*

- *Hezkuntza-maila guztientzako hezkuntza-materialak garatzea, “Hasi eta Hazi” ekimenaren babesean eta parte hartzeko dinamika bat erabilita. Bertan, koordinazio-talde bat eta hezkuntza-maila bakoitzarentzako lan-talde batzuk parte hartu dute, zenbait expertise-talderen laguntzarekin, pedagogia-arloari zein IKTen erabilerari dagokienez. Material hori guztia, gaztelaniaz zein euskaraz argitaratu dena, Gipuzkoako eskola guztietan banatu da.*

- *Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistema osoari zuzendutako elkarlaneko joko bat bultzatu da webean, Kosomodisea izena duena. Ekimen horrekin, talde-lana bultzatu da, bai ikastetxe bakoitzeko geletan bai ikastetxeen artean, eta, horregatik, parte-hartzaile guztiek oso ondo hartu dute. Ikasleek, ekimen-gaitasunaren fase guztiak (diagnostikoa, ideiak proposatzea, garatzea eta horien lorpena eta eragina ebaluatzea) barne hartu behar dituen proiektu baten inguruan egiten dute lan, kultura ekintzailearekin lotutako balioak kontuan hartuta.*

*Kosmodisearen bidez, funtsean, ondorengo alderdiak bultzatu dira: hezkuntza-arlo guztietako ikasleek parte hartzea; ikasleen autokudeaketa (ideiak eta proiektuak proposatzea, proiektuak garatzea, aurrera eramandako eginkizunen eta lorpenen norberaren ebaluazioa eta kanpo-ebaluazioa, etab.); informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera trinkoa; ikasleek, irakasleek eta eskolek berek egindako ahaleginen aintzatespen soziala, ekitaldi publiko eta berritzaile baten bidez; eta, azkenik, kanpoko laguntza-talde bat finkatzea, besteak beste, ondorengo alorretan adituak diren pertsonen osatua: antropologia, pedagogia, IKTak, antolakuntzaren kultura, joko didaktikoak, etab.*

- *Hezkuntza-arloan kultura ekintzailea sustatzeko jardunbide onen nazioarteko identifikazio-prozesu bikoitza egin da. Alde batetik, kultura ekintzailea gizarte baten garapen orekaturako ardatz estrategiko gisa barneratzen zuten lurralde-ekimen edo -estrategiak. Eta, bestetik, laguntzako hezkuntza-material guztiak identifikatu eta, horien hezkuntza-maila, hizkuntza, erabilerraztasuna eta politika orokorragoetan barneratzeko gaitasun-maila kontuan hartuta, ordenatu dira.*

- Unibertsitate-arloan, “Gaze” ekimena azpimarratu behar da bereziki. Gipuzkoa Berritzen proiektuaren barnean sortutako programa bat da eta Gipuzkoako goi-mailako hezkuntzan ekintzailetza —proiektu edo ekimen bat aurrera eramateko gaitasuntzat hartuta— sustatzea eta horrekin lotutako zenbait balio bultzatzea du helburu. Balio horien artean egongo lirateke, besteak beste, ekimena, sormena, berrikuntza, pentsamolde kritikoa, talde-lana, autonomia, erantzukizuna, motibazioa eta ikasteko gogoia. Proiektua, “governantzaren” kontzeptua aplikatuz garatzen da. Horren arabera, ikasleek, programako “pertsona onuradunak” izango diren aldetik, subjektu aktiboak izan behar dute, hura sortu, diseinatu eta garatzeko unean.

- “Adn-Ekintzaile” izeneko esperientzia pilotua bultzatu da, gizarte-zabalkundea eta IKTak barneratzen dituen eta hezkuntza-arloa bideratuta dagoena. Oinarrian, hainbat ikuspuntu kontuan hartuta hezkuntza-arloak pertsona ekintzaileen sustapenean duen zereginari buruzko gogoeta egitean datza.

## **EKIMENKIDEAK**

- Nola jarduten du zure ardurapean dagoen departamentuak?

*Funtsean, curriculum-proposamen bat garatu da, “bizi kalitatea hobetzeko, pertsona ekintzailea izatera” zuzendutako filosofia orokorra aintzat hartuta.*

*Ekimen hori, ondorengo jarduketa-printzipioetan oinarrituta dago:*

- ekimenkidetza publikoa/pribatua, helburu bera duten agente publiko eta pribatuen konpromiso-formula eta elkarren arteko aintzatespen-dinamika bultzatzeko.

- Subsidiaritatea eta gertutasuna, hiritarregana hurbiltzeko eta sinergiak eta osagarritasunak bilatzeko (arazotik gertuen dagoena / beharra, konponbidetik gertuen dagoena da / erantzuna).

- aukera-berdintasuna, irisgarritasuna pertsonen eta pertsona-multzoei beren errealitatean bertan laguntzeko oinarri gisa hartuta eta ekintza positiboak zeregin publikoarekin eta, bereziki, gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekin duen lotura ulertuta.

- IKTen (webak, wikiak, bideoak, blogak, mp3-ak, etab.) erabilera, mezua sortzen eta horri balioa ematen dion bitarteko bat delako eta komunitate birtuala eta soziala partaidetzarako oinarri gisa proposatzen duelako.

- gobernantza, ekimen publikoko edozein jardueraren aurretik egin beharreko diseinua eta garapena zehazteko.

- Eta hemendik aurrera zer?

- Ezagutzen dugu hezkuntza-komunitate osoak egindako ahalegina, bai eta kultura ekintzailea sustatzeko proposatu diren ekimen guztietan parte hartzean jarri duen interesa ere. Horregatik, gure helburua, Gipuzkoako hezkuntza-sistemak espiritu ekintzailea garatzeko oinarrizko konpetentziak zabaltzeko duen rol garrantzitsua

*hartzea izaten jarraituko du. Izan ere, Kosmodiseako hurrengo edizioa martxan da. Eta, oraingo honetan, are diseinu hobea aurkeztuko du eta oraindik ekimen horretan parte hartzera inoiz animatu ez diren zentro guztiek parte har dezaten saiatuko gara. Esamolde herrikoi bat erabiliz esan dezakegu ziur gaudela behin Kosmodisean parte hartzea probatuz gero, esperientzia errepikatuko dutela.*